

HEZKUNTZA ETA GIZARTE ORIENTAZIOA

Deskribapena

Irakasgai honek hezkuntza- eta gizarte-interbentzioaren esparruetan orientazio-funtzioa garatzeko estrategiak eta tresnak eskaintzen ditu, hala prebentzioaren nola egoera zailei aurre egitearen ikuspuntutik.

Helburuak

- Hezkuntza formalean eta ez-formalean orientazio-lanei ekiteko modu desberdinak deskribatzea.
- Hezkuntza- eta gizarte-orientazioak hezitzaileei ematen dizkien ebaluazio- eta interbentzio-tresna nagusiak ezagutzea.
- Gizarte konplexu, global eta kulturantzunean hezitzaile izateak esan nahi duenaren kontzientzia profesionalaz jabetzea.
- Hezkuntza- eta gizarte-eragileek gaitasun intelektualak, sozialak, emozionalak eta etikoak garatzeko duten rolaz gogoeta egitea, bizitza osoan ikaskuntzaren ikuspegitik.
- Autoestimua profesional eta pertsonalak hezitzaileek dituzten orientazio-funtzioen garapenean duen rola aztertzea eta balioestea.
- Ongizate pertsonalean eta taldeen garapenean lagungarri edo oztopo diren interakzio-elementuez gogoeta egitea.
- Pertsonaren eta taldearen garapena sustatzeko proposatzen diren estrategia psikopedagogikoak aztertzea eta balioestea, arreta berezia eskainiz mehatxu-, gatazka- eta jazarpen-egoerei aurre egiteko estrategiei.
- Diziiplina-gatazkei aurrea hartzean eta konpontzean diren autoritatea erabiltzeko moduak aztertzea eta balioestea, garapen soziopertsonala eta taldean parte hartzea sustatzearen ikuspegitik.

- Garapen soziopertsonala eta taldeen parte hartzea sustatzeko esperientziak eta hezkuntza-programak aztertzea eta balioestea.
- Hezitzaileek genero-berdintasuneko balioak sustatzean duten rola aztertzea eta balioestea, arreta berezia eskainiz zaurgarritasun- eta bazterketa-egoerei, dela bizi-arrazoiengatik (zahartzea), dela egoera-arrazoiengatik (pobrezia).
- Talde-lana aztertzea eta balioestea, kontuan izanik orientazio-lana talde-lana dela.
- Hezkuntza-testuinguruetako pertsonarteko egoerez gogoeta egiteko, aztertze eta balioesteko gaitasuna sustatzea.

Gaitasunak

Bi gaitasun mota bereizi behar dira. Batetik, hiru gaitasun instrumental, programa osoan zeharkakoak, eta batez ere jarrerari dagozkionak. Bestetik, programaren edukiarekin lotuago dauden gaitasunak.

Gai guztietan zehar ageri diren gaitasunak

- Paperezko zein euskarri digitaleko hainbat baliabide aztertze eta gaitasunak izatea, eta ahoz zein idatziz adieraztea, bereizten jakinez balioespen-elementuak eta iritzi pertsonala.
- Gai izatea estrategia psikopedagogikoei buruzko ezagutza kasu eta egoera praktikoak planteatzeko eta balioesteko erabiltzeko, arreta berezia eskainiz arazo etikoei eta desberdintasun-egoerak identifikatzeari (genero-desberdintasuna, zaurgarritasun- eta bazterketa-egoerak).
- Gai izatea garapen intelektual, emozional, sozial eta etikorako estrategia eta baliabideen ezagutza norberaren bizipenekin lotzeko, taldean partekaturiko gogoeta-, azterketa- eta balioespen-egoerak planteatzeko.

Ikasgaiaren edukiekin lotutako gaitasunak

- Gai izatea hezkuntza-orientazioko ereduak identifikatzeko kasuak aztertzean.
- Gai izatea ebaluazio txikiak egiteko eta emaitzak orientazio-tresna ohikoen bidez interpretatzeko (behaketa, elkarrizketa, testak).
- Gai izatea hezkuntza- eta gizarte-eragileek gaitasun intelektual, sozial, emozional eta etikoak garatzean duten rola modu kritikoan balioesteko, bizitza osoko ikaskuntzaren ikuspegitik, eta hezkuntza-jardunbideko ohiko egoeretan identifikatuz.
- Ezagutzea eta praktikan jartzen jakitea hezitzaile, ikasle, familia eta erkidegoarekiko hezkuntza-harremanetan interakzio positiboari laguntzen dioten elementuak.
- Gai izatea autoestimua eta gaitasun soziopertsonalen rola identifikatzeko hezkuntza-testuinguruetan erantzuteko eran, batez ere talde-egoeretan.
- Gai izatea taldeak kudeatzeko estrategia pedagogikoak eguneroko egoerak ebatzeari aplikatzeko, eta bereziki gatazkak eta oldarraldiak ebatzeari.
- Orientatze-funtzioa interbentzio-ekintza gisa sumatzea, arazoei aurre hartzeko eta gaitasun intelektual, sozial, emozional eta etikoak garatzeko. Bereziki, esku-hartzearen programa bat aztertzea eta ebaluatzea

Edukiak

I. Blokea: Hezkuntza eta Gizarte Orientazioaren esparru kontzeptuala

- Orientazioaren jatorria, garapena eta ereduak
- Orientaziorako oinarrizko trebetasunak eta tresnak (elkarriketa, behaketa)

II. Blokea: Hezkuntza eta Gizarte Orientaziorako gaitasunen garapena

- Autoestimua profesionala eta gaitasun sozio-pertsonalak
- Pertsonarteko gaitasunak eta taldeak kudeatzeko gaitasunak

III. Blokea: Orientazioa hezkuntza- eta gizarte-interbentzioko prozesu gisa. Interbentzio-programak.

- Adin txikikoentzako orientazio- eta interbentzio-programak.
- Orientazio-programak bizitzan zehar

Aurre baldintzak

Aurkezten dugun ikastaroa hezkuntza- eta gizarte-eragileek gaitasun intelektual, emozional, sozial eta etikoen garapenean duten rolaz gogoeta egin nahi duten pertsona guztiei dago zuzenduta. Ikastaroan psikologiaren eta hezkuntzaren arloko hezkuntza erabiltzen bada ere, ez dago aldezturik aurretiko baldintzarik ikastaroan parte hartzeko. Nahikoa da jakin-mina eta gaien alderako interesa izatea. Ikastaroa sakontasun-maila batean edo bestean landu daiteke, noski, baina jarduera praktikoa egitea ezinbestekoa da ikastarora modu benetan eraginkorrean hurbiltzea segurtatzeko.

Kronograma

HEZKUNTZA ETA GIZARTE ORIENTAZIOA: ASTEKAKO PLANGINTZA (15 ASTE)

BLOKEA	GAIA	DENBORA
I: HEZKUNTZA ETA GIZARTE ORIENTAZIOAREN ESPARRU KONTZEPTUALA		2 aste
	1. Orientazioaren jatorria eta garapena	
	2. Orientazioan jarduteko ereduak	
II: HEZKUNTZA ETA GIZARTE ORIENTAZIOKO GAITASUN, TREBETASUN ETA TRESNEN GARAPENA		6 aste
	1. Orientaziorako oinarrizko trebetasunak eta tresnak (elkarrizketa, behaketa...)	
	2. Autoestimua profesionala eta gaitasun sozio-pertsonalak	
	3. Orientatzaileen gaitasun eta etika profesionalak pertsonarteko harremanetan eta harreman instituzionaletan (pertsonarteko gaitasunak eta taldeak kudeatzeko gaitasunak)	
III: ORIENTAZIOA HEZKUNTZA- ETA GIZARTE-INTERBENTZIOKO PROZESU GISA. INTERBENTZIO-PROGRAMAK.		6 aste
	1. Adin txikikoekiko orientazio- eta interbentzio-programak.	
	2. Orientazio-programak bizitzan zehar	

Metodologia

Ikastaroaren metodologiak praktikoa izan nahi luke. Eguneroko kasu eta egoerak hautatu dira; horiek konpontzea nahitaezkoa da lortu nahi diren helburu eta gaitasunak behar bezala garatuko direla bermatzeko. Batetik, aplikatzen jakin beharra dago estrategia eta baliabide psikopedagogikoei buruz jasotako ezagutzak proposatzen diren kasu praktikoak ebazteko. Bestetik, aplikatzen jakin beharra dago ezagutza horiek norberak pentsaturiko egoerak planteatzeari, aztertzeari eta balioesteari.

Ebaluazioa

Lana uzten denean edota azterketa egiten ez denean deialdia ez da galduko. Nahikoa izango da ez aurkeztearekin. Bi ebaluazio-aukera daude

1- Ebaluaketa jarraia

Jarraipena eta autoebaluazioa prozesuan bi gauza kontutan hartu behar dira. Alde batetik, edukiak ulertu direla ziurtatzeko gai bakoitza irakurtzea lehenengo urratsa da. Bestetik, gai bakoitzari dagozkion praktikak egitea gomendatzen da

Talde-lana

- **Gelako praktikoak** funtzio orientatzailea burutzeko (**1 puntu arte**). Ikasgelan eginiko praktikak idatziz jasoko dira egunean
- **Irakasleak proposaturiko programak** erreferentziatzen hartuz orientazioan garrantzitsuak diren programak aurkeztuko dira ikaskideen aurrean (**2 puntu arte**). Ebaluaketan ahozko aurkezpena, powerpointa eta papereko lana eukiko dira kontuan.

Banakako lana

- **Glosario ilustratua (2 puntu arte)**: Klase teoriko-praktikoetan zehar garatutakoa glosario ilustratua batean islatuko da

Idatzizko azterketa (3 puntu arte)

Banakako glosario ilustratua erreferentziazat hartuta gaitegiko kontzeptu nagusiak galdetuko dira, artikulua akademikoetan eta komunikabideetan agertutako adibideak jarri beharko direlarik

2.- Azterketa (8 puntu). Azterketa egongo da, ebaluaketa jarraian ez dauden ikasleentzako edo uztea erabakitzen dutenentzako, motiboa edozein delarik). Azterketak notaren %eko 80a balioko du eta beste %eko 20a DILANaren nota izango da. Izaera teoriko-praktikoa dauka eta atal bakoitzak balio bera du (erdia) eta bi atalak gainditu beharko dira irakasgaia gainditzeko. DILAN-a (2 puntu arte)

Bibliografía

BARRERO GONZÁLEZ, N. (2007). Manual para el diseño y evaluación de programas de orientación educativa.

COSTA, M y LOPEZ, E (1991). *Manual del Educador Social*. Dirección General de Protección Jurídica del Menor

DE LA CABA, M.A (2000). *Educación Sociopersonal*. Bilbao: Universidad del País Vasco (Amazon)

DE LA CABA, M. A.(2014). Hezkuntza eta Gizarte Orientazioa. OCW EHU/UPV Universidad del País Vasco 2255-2316

DE LA CABA, M. A.(2013). Orientación Educativa y Social. Campus Virtual-OCW- EHU/UPV Universidad del País Vasco 2255-2316-
<http://ocw.ehu.es/course/view.php?id=262>
<http://ocw.ehu.es/course/search.php?search=Orientacion+Educativa+y+Social>

MARTÍNEZ CLARES, P. (2002). *La orientación pedagógica: modelos y estrategias de intervención*. Madrid: EOS.

RIART VENDRELL, J.(coord.)(2006). *Manual de Tutoría y Orientación en la diversidad*. Madrid: Pirámide

Web orrialdeak

APSIDE. Organización de Psicopedagogía de Euskadi. Euskadiko Psikopedagogiako Elkartea
<http://www.psicopedagogia-euskadi.org/>

Bige.
Asociación de Madres y Padres de Bizkaia
<http://www.bige.org/es/>

Departamento de Empleo y asuntos sociales. Gobierno Vasco
<http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-home/es/>

Educación. Gobierno de Navarra
<http://www.educacion.navarra.es/portal/>

Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco/
<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2591/es/>

EducaAragon. Departamento de Educación, Cultura y Deporte
<http://www.educaragon.org/>

Educación Social y ciudadana
www.educacionsocialyciudadana.com

Educarueca. Dinámicas para tutoría
<http://educarueca.org/>

Etxadi.Familia – Centro Universitario de Psicología de la familia
Etxadi. Promoción de la parentalidad positiva
<http://www.etxadi.org/es/inicio.html>

Etxadi. Servicio de Orientación Psicológica a la Familia
Zumarraga.net
<http://www.zumarraga.net/es/html/2/1747.shtml>

Familia y Cole. Blog educativo para padres, maestros y profesionales
<http://familiaycole.com/>

Federación española de Orientación y Psicopedagogía
<http://www.uned.es/reop/>

Gizardatz
Asociación de Entidades de Iniciativa e Intervención social de Bizkaia.
<http://www.gizardatz.net/inicio.html?&L=1>

Gobierno de la Rioja. Educación, Cultura y Turismo

<http://educarioja.org/educarioja/home.jsp>

INTEF. Instituto Nacional de Tecnologías Educativas y Formación del Profesorado. Ministerio de educación, Cultura y Deporte

<http://www.ite.educacion.es/es/recursos>

[Instituto de Iniciativas de Orientación Familiar \(IIOF\) www.iiof.es](http://www.iiof.es)

Justizia/ Grupo psisocial de Justicia

<http://www.justizia.net/epaitegiko-lantalde-psikosoziala>

Materiales para la convivencia escolar

<http://convivencia.wordpress.com/2009/02/23/indisciplina-y-violencia-ivace/>

Orientaeduc.com. Recursos para la Orientación Educativa. [Página profesional de Luis Barriocanal](#)

<http://www.orientaeduc.com/>

Orientared. Recursos para la Orientación en la red. Antonio Gutierrez

<http://www.orientared.com/>

Orientacion y Educacion social

<http://beltranorientacion.blogspot.com.es/2008/03/sitios-web-exclusivos-tematicas-de.html>

Orientacion Educativa. Ministerio de Educación. Instituto de Tecnologías Educativas

<http://ntic.educacion.es/w3/recursos2/orientacion/>

Orientabidea. Lan eta Hezkuntzarako Orientazioa. Bizkaiko Foru Aldundia Castellano: <http://www.bizkaia.net/orientabidea/index.html>

Recursos para orientadores en apuros. Francisco Jose Hernandez

<http://chopo.pntic.mec.es/~fferna23/>

Recursos para la Orientación Académica y Profesional

<http://sauce.pntic.mec.es/~mbenit4/>

Recursos para la Orientación Educativa

<http://www.orientaeduc.com/>

Tu hablas. Servicio de Orientación, Asesoramiento e información para la Infancia y la Adolescencia. Gobierno Vasco

<http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-zeukhome/es/>

Tutores al borde de un ataque. Angel Saez <http://perso.wanadoo.es/angel.saez/>

